

Astekaria

BARREN elgoi



kirolBARREN 93
herriko kirolariak omenduz



YOSUTHERMIK

PVC, ALUMINIO eta POLIURETANO AROZTEGIA

Egunez egun zuzandik hurbilago

Santa Ana 28an (Sigmako zubian) ELGOIBAR ☎ 74 43 83

LEIHO ISOLATZAILEAK

- * Climalit beira bikoitza.
- * 10 urteko garantia idatziz.

**ESKA EZAZU AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

ELGOIBARKO IRAKASKUNTZA ERTAINAK



LANBIDE ESKOLA ☎ 74 44 80



BATXILERGO INSTITUTUA ☎ 74 02 67

BATERATZE BIDEAN

EMANDAKO URRATSAK

- BARNE ARAUDI BERRI BAT
- HEZKUNTZ PROIEKTU BAT (egiten ari)
- EKINTZA OSAGARRIAK BATERA
- TUTORETZA ETA ORIENTAZIO DEPARTAMENTU BERA
- GURASOEN ESKOLA: drogomenpekotasunari eta sexu heziketari buruzko ikastaroak, e.a....

DATORREN IKASTURTERAKO ESKAINTZA

lanbide eskola

- 1 • REM I
- 2 • REM II
- 3 • **BATXILERGO BERRIAK I**
 - NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
 - HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK
 - BATXILERGO TEKNOLOGIKOA
- 4 • L.H. 2.2. (automozioa)
• L.H. 2.3. (automozioa)
• B.A.G. 2
• B.T.I. 2
• M II Txapa eta pintura
• M III Enpresen administrazioa eta gestioa

batxilergo institutua

- BBB (BUP) I
- BBB (BUP) II
- **UBI (COU)**
 - A - Zientifiko teknologikoa
 - B - Biosanitarioa
 - C - Gizarte Zientziak
 - d - Humanistiko - Zientifikoa

GIZA BALIABIDEAK



AURREMATRIKULA EGITEKO EPEA: MAIATZAREN 4TIK 18 BITARTEAN

elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegi

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,
Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo,
Jose Inazio Sarasua

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso

Jasone Osoro

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegi, Itziar Agirregomezkorta, Ana Aizpiri, Myriam Aldazabal, Isabel Ansola, Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara Burgaina, Urtzi Etxabe, Asier Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix Etxeberria, Izaro Etxegibel, Enez Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Gotzon Garate, Amaia Gorostiza, Alfonso Guillo, Maite Iriondo, Ekaitz Isasi, KOKOE, Enrike Larrañaga, Imanol Larrañaga, Haritz Leon, Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya, Iñaki Odriozola, Ixa Sanchez, Eduardo Sanz, Jose Inazio Sarasua, Oihana Tarragual, Alain Ulazia, Olga Unzilla, Igor Vazquez, Ana Vila, Miryam Villasante, Alaitz Vives, Aitor Zabaleta, Yulen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.



Elebitasuna

Elebitasunaren ustea oso zabaldua dago Euskal Herrian. Euskal Herriko jendea bi hizkuntzez mintza litekeela uste dute askok. Euskaldunok euskaraz eta gaztelera mintzatu behar omen gara.

Uste erabat okerra da hau. Ez da izan, ez dago eta ez da izango munduan herri bat luzaroan bi hizkuntzez mintzatuko denik. Euskal herrian, beraz, euskara edo erdara izango da nagusi.

Elebitasunaren mitoa ergelak engainatzeko kontua da. Garai batez espainolek Suiza ipintzen ziguten elebitasunaren eredu. Suizan jendea bi edo hiru hizkuntzez mintzatzen omen zen.

Ez da egia. Suizan bi urtez bizi izan naiz eta han nork bere hizkuntza erabiltzen du. Bi herenak alemanez mintzo dira. Baina askotan ez "hoch deutsch"eraz, dialektoz baizik. Horiek ez dakite frantsesez, inolaz ere. Banaka

batzuek badakite, bai, alemanez eta frantsesez. Frantzian batzuk frantsesez eta ingelesez dakiten bezala. Suizan ez da elebitasunik.

Bai, aldi labur batez gerta liteke herri batek bi hizkuntza erabiltzea. Azkenean, ordea, bata nagusituko da eta bestea itzali. Euskal Herrian zer gertatu den badakigu. Gipuzkoan gizaldi honen haseran %80 baino gehiagok egiten zuen euskaraz. Orain %40ak.

Beste gauza bat ere ezinezkoa da. Idazle on batek bi hizkuntzez ongi idaztea. Berehala antzematen da hizkuntza batez askoz hobeto idazten duela besteaz mintzo baino. Euskal Herrian pertsona bakarra ezagutzen dut nik, euskaraz gaztelera baino hobeki idazten duena: Basarri. Beste idazle elebidunek espainolez askoz hobeto idazten dute euskaraz baino.

Gotzon Garate

Deustu Unibertsitateko katedratikoa

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

Elgoibarko kirol munduan hutsune handi bat somatuz, honoko galdera hau egin digu kirolzale batek:

• **Ba al dago inolako intentziorik Elgoibarren saski-baloi talderik sortzeko?** Udaleko Kirol Zerbitzuko teknikariarekin egon gara eta 19-22 urte bitarteko gazte talde bat zerbait egiteko asmotan dabilela adierazi digu. Bere esanetan Udalak ahal duen guztia egingo du proiektua gauzatzeko.



KEXAK

Ikastolako haur baten amak deitu digu eta zera esan digu: "I. Haur Kroseko antolatzaileak kritikatu nahi ditut ekintzaren aurkezpena euskaraz eta erdaraz egin zutelako. Esan eta esan ari gara Elgoibarko haur guztiek euskara ulertzen dutela eta hala ere, ezin dugu gainditu dena bietara egiteko joera kaxkar hori".



TXALOAK

Ikastolako zuzendaritza eta kirol arduradunak txalotu nahi ditut antolatu berri duten I. Haur Krosagatik. Honekin batera, gurasoak ere txalotu nahi nituzke, haurrak kirola egitera animatzeagatik. Bukatzeko, haurrak txalotu nahi ditut 458 izan baitziren parte hartu zutenak.

ESKUTITZAK

Elgoibartarrak Uruguayan

ElgoiBARREN aldizkarian nazioarteko erreportaiak azaldu direla eta, ez dugu Uruguay alderuntz jotzeko beta galtzerik nahi, bi orrialde ezean, lerro batzurekin behintzat bada ere; ez bertako erlauntzei buruz aritzeko, Elgoibarko errealitatearen "beste" aurpegi bat isladatu asmoz baizik. Izan ere, nabarmena da elgoibartarron informazio eza gai honen inguruan.

Mikel Ibañez 39 urteko elgoibatarra izaki, ez da bere gogoz abiatu Hego Amerika aldera oportetara, ez eta gutxiagorik ere. 1989. urtean atzerrian errefuxiatua, preso hartu zuten Uruguayan Josu Larizekin batera. Azken hau, haatik, Montevideoko kartzelan urtebete pasa ondoren, askatu egin zuten. Mikel Ibañezek, berriz, gaur egun preso darrai Uruguayko espetxe batean. Espainiako agintariek bi aldiz eskatu dute bere estradizioa, eta Uruguaykoek amore eman behar izan, mila milioiko xantaia ekonomikoa dela medio. Halere, oraindik errekurtsioetan dabilta.

Bide batez, eskutitz hau idaztean ez dugu gainontzeko

preso elgoibartarrak agurtzeko aukera galtzerik nahi, haietako hiruk, aurten, 10 urte beteko baitute espetxean: Iñaki Jaio, Mikel Alberdi eta Ignacio Iriondo. Gure agurrik beroenak baita ere, Valdemoron dagoen Sebas Etxanizi.

Inork zalantzarik baleuka, senitarteko zein kaleko jendea prest dago edozein galderari erantzuteko. Besterik gabe, ez etsi... eta segi aurrera!

Elgoibarko Jarrai

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Kezka, iritzi, galdera... adierazteko aukera duzue bertan.

Eskutitzak, idazten duenaren izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NANA izan beharko ditu. Argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inizialak bakarrik agertuko dira.

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



© KOKOF 1994



Aste honetako erretratua **A. Solupek** lagatakoa da. Berau 1941. urtean ateratakoa omen da. Jakin dugunez San Bartolome jaien bueltan bizikleta karrera bat izaten zen: Elgoibartik irten, Eibarrreraino joan eta buelta berriz Elgoibarreraino.

Konturatu al zarete bizikletaren munduan urteak ez direla alferrik pasatu? Ikusi eta konparatu bestela orduko eta gaurko kaskoak, antiejuak, kuloteak, oinetakoak,... eta juezen erropak.

Erretratua eskuetan hartu eta urreratu zaitezte maiazaren Iean Plaza handian izango den Duathloira;

goian aipatu aldaketak begibistan izateko aukera paregabea. Ikus dezagun zeintzuk diren bizikletero xeble hauek. Tente, ezkerretik hasita: **Juanito Arrieta "Lerun-Txiki"**, **Eugenio Gabilondo**, **Pedro Azpiazu**, **Pedro Arosa**, **Sebastian Irusta**, **Luis Jauregi**, **Antonio Gabilondo**, **Jose Gabilondo**, **Imanol Leiaristi "Parapan"**, **Karmelo Iriondo** eta **Pedro Atristain**.

Lurrean eserita: **Alberto Ezenarro "Kakume"**, **Rikardo Suarez**, **Julian Iriondo**, **Pedro Garcia**, **Jose Juaristi**, **Pepe Suarez** eta **Arturo Zubiaurre**.

Aurreko biak: **Santi Zuazubizkar** eta **Vicente Berasaluze**.

Elgoibarko Haur Eskola Arregitorre 4, ☎ 74 21 41

0-3 urteko haurrentzat

- ■ **ORDUTEGIA:** Goizeko 7,30etatik arratsaldeko 6etara
- ■ **3 HEZITZAILE**
- ■ **400 m² ko ESPAZIOA:**
Jangela, logela, aldagela, jolasgela eta psikomotrizitate gela
- ■ **500 m² ko PARKE EDER** bat leku estali batekin
- ■ **KUOTA: 23.000 pta hilean (10 hilabete)**

Haurrak zoriontsu hezi ditzagun!!



Anjel Mari Albizu izan da 93ko kirolari onena



BARREN eta Udal Kirol Zerbitzua- ren eskutik, kirolBARREN 93 izeneko ekitaldia burutu zen joan den aste- artean Erreminta Maki- naren Institutuan. Izas- kun Elizburu elgoibarta- rrak aurkeztutako saioari mahainguru batek eman zion hasera eta bukaerara arte ez zen ezagutu kirol- BARREN 93ko irabazle- a. Otsailean eta mar- txoan zehar BARRENen agertutako 14 kirolariren artetik, Anjel Mari Albi- zu judokak jaso zituen boturik gehien. Irakurle-

ek emandako 725 botue- tatik, 170 bereganatu zituen. Sariak banatzen, mahainguruan parte hartu zuten Aitor Elkoro, Andoni Imaz eta Felix Iñurrategi izan ziren. Aipatu sariok Mertxe Sueskunek egindako eskulturatxoak dira. Anjel Mari Albizuk Jose Inazio Elkoro-Iribe alka- tearen eskutik jaso zuen irabazleari zegokion saria.

Jakin ezazue, kirol- BARREN lehiaketaren bigarren edizio bat anto- latuko dela datorren 1994 urterako.



BARRENeK jasotako 725 txartelen artetik, Artegi- k emandako Sony bideo bat zozketatu zen sari banaketa aurretik. Mahainguruko moderatzaile izan zen Arritxu Iribar kazetariak Mari Angeles Gabilondo Alberdik bidalitako txartela atera zuen. Argazkian, Mari Angeles Gabilondoren ordez, Mari Angeles Agirregomezkorta bideoa jasotzen Artegi dendakoen eskutik. Zorionak!



Anjel Mari Albizu (Judo), Jose Inazio Elkoro-Iribe alkatearen eskutik saria jasotzen.



Andoni Imaz Alexander Galarragari (Txirrindularitza) saria ematen.



Alazne Rementeriak (Eskubaloia) Felix Iñurrategiren eskutik jaso zuen oroigarria.



Patxi Arriolari (Ehiza) Andoni Imazek eman zion saria.

AZKUE



Juan Inazio Ansolak (Pilota) Aitor Elkoro pilotariaren eskutik jaso zuen saria.



Iñaki Konderi (Triathloia) Iñurrategik eman zion garaikurra.



Carmen Perea (Atletismoa) saritua, eta Aitor Elkoro sari emailera.



Joseba Etxeberriaren partez (Futbola) bere arreba jaso zuen saria.



Jabier Arriola (Harrijasotzailea) Elkorok emandako sariarekin.



Pablo Barrenetxea eta Aitor Esnaola (Mendia) Iñurrategik emandako oroigarriarekin.



Judith Ajubita (Igeriketa) eta Andoni Imaz Errealeko jokalaria.



Josu Duran (Karatea) poz pozik sariarekin, Aitor Elkoro pilotariarekin. Zorionak denoi!

MAHANGURUA

Kirola eta profesionaltasuna

kirolBARRENEko lehen edizio honi hasera emateko, ekitaldi berezi bat antolatu zen. Mahai baten bueltan bildu ziren Felix Iñurrategi mendizale ezaguna, Aitor Elkoro pilotaria eta Andoni Imaz Errealeko jokalaria, kirola eta profesionaltasunaz hitz egiteko. Diego Garcia maratoilariak saioan egongo zela agindu arren, azken orduan ez zuen etortzerik izan Madrilen azterketa mediku bat egin behar zuen eta. Galderak egiten eta sekretu guztiak azalertzen Arritxu Iribar Euskadi Irratiko kirol kazetaria izan zen. Mahaikideek sendo erantzun zioten kazetariak egindako galderei eta zenbait ikuslek botatako beste batzueri ere bai.



Arritxu Iribar, kazetaria.

ARRITXU IRIBAR. Nola ulertzen duzue profesionaltasuna?

FELIX IÑURRATEGI. Profesionaltasuna bertatik bizitzea edo dedikazio osoa ematea bada... Guk askotan dedikazio osoa baino gehiago ematen diogu, ez agian kirolari berari baina bai gainean dagoen montaje guztiari. Batzuek bizi dira menditik, frantsesek lortu dute. Euskal Herrian aztertu beharko litzateke aukera hori.

ANDONI IMAZ. Jendeak egin gaitu profesionalak futbolak asko saltzen duelako. Gu profesionalak gara lan bat egiteko ordaintzen digutelako eta ni ahalegindu behar naiz hobere-

na ematen.

AITOR ELKORO. Profesionala bertatik bizi dena da. Ni orain pilotatik bizi naiz eta pozik gainera, gustatzen zaidan zerbait egiten dudalako. Pilotan profesionalak orain ondo bizi gara.

ARRITXU. Bertatik bizitzeko gauza asko sakrifikatu behar al dira?

AITOR. Bueno, profesionala prestatu egin behar denez, gauza asko laga behar dira. Baina gustuko gauza bat denez, ez da hainbeste kostatzen, juer-gak zaindu behar dira.

ANDONI Futbolistek golfo fama izan arren, bakoitzak jarri behar du sakrifizioaren muga. Batzuek juerga egin arren ondo ibiltzen dira eta horiek jartzen digute golfo fama.

FELIX. Gu golfoak gara. Dena den, gauzak aldatzera doazela uste dut.

Anekdota bezala esango dizuet Tximist espedizio-koek 700 kilo zeramatzate- la edaritan. Mendizale famatuak ere, erretzaile porrokatuak izan dira. Kirolariaren kontzeptzioan guztiz kanpo geratzen da hau.

ARRITXU. Ikasketak sakrifikatu behar al izan dituzue?

ANDONI. Futbola nik nahi nuena zela ikusi nuen eta horretan saiatu naiz. Injenieritzako lehen urtea egina dut, hizkuntzekin ere aritu izan naiz eta beste karrera bat egiteko COUn matrikulatu, baina dena utzi dut. Nire bizitza aurrera ateratzeko anbizioa daukat.

AITOR. Posible da ikasketak egin eta pilotan jardutea. Txirrindularitzan ordu asko entrenatu behar denez, beharbada zailagoa izango da baina futboleant



Aitor Elkoro, pilotaria

eta pilotan ahal da.

FELIX. Jendeak saiatu behar izan du bizimodua bere ikasketetatik ateratzen. Kurioso da gure aurreko alpinista gehientsuenak karreradunak izatea. Orain gatozenok zabarxeago geratu gara. Nik ere neure ikasketak bukatu behar izan nituen Himalayan hasi aurretik.

Arritxu. Andoni, Erreala elkarte anonimo bihurtu denetik, igartzen al da?

ANDONI. Bai, batipat jendearen erantzuna segun eta nola portatzen garen gu

zelaian. Akzioak dituztenez, denak dutela zerbait esateko eskubidea dirudi.

ARRITXU. Profesionala izateak famoso izatea esan nahi al du?

ANDONI. Ez beti. Egunkarietan ibiltzen direnek, segun eta nola erortzen zaion bat edo bestea, desberdin tratatzen dute.

FELIX. Ez dakit zenbaiteraino famoso naizen.

ARRITXU. Neska gazte-en artean badakit oso famoso zarela.

FELIX. Baina horrek ez du etekinik ematen!

AITOR. Argi dago zenbat eta gehiago agertu ezagunago bihurtzen zarela.

ARRITXU. Eta famoso sentitzen al zarete?

AITOR. Ez, oraindik ez.

ANDONI. Nik lehen bezala jarraitzen dut.

FELIX. Everestaren ondoren alztatu faltsu bat eman ziguten. Batipat mendira goazenean jendea begira dagoela konturatzen zara. Batzuetan frogak egin behar izaten ditugu eta mendi inguruan dabilen asko begira izaten dira. Gero, 'Inñurategitarrek aldapa hau hainbestetan igotzen dute' eta horrelakoak entzun behar izaten dira eta horrek izugarri molestatzen nau.

ARRITXU. Nola daramazue pren-

tsarekin harremana?

FELIX. Guk moskeo dexente daukagu. Mendien inguruan idazten duen oso jende gutxi dago. Baina Everesteko historiaren ondoren astakeriak barra barra idatzi ziren.

ANDONI. Futbolari buruz idazten dutenek, orokorrean zeri buruz dabilzan badakitela uste dut. Batzuetan ardura ez zaion gaitan sartzen dira.

AITOR. Kazetari batek ez badu pilotan jardun nekez jakingo du zer sentitzen den. Hor oker bat dagoela uste dut.

FELIX. Pentsa, mendi bat sekula ikusi ez duenak! Egunkarietan Himalayismoa ateratzen da batez ere, eta horren inguruko ezjakintasuna izugarria da. Imajinarioak denetarik egiten du.

ARRITXU. Futbolearen ezberdintasunik al dago jokalarien artean?

ANDONI. Atzerritarren eta bertokoen artean bai, bestela, Misterrari berdin zaio gutako bat kendu edo beste bat jarri. Atzerritarrei diru gehiago ordaintzen zaie eta ia beti dago zelain jokatzera behartuta. Askotan norberak baino lan gutxiago eginda, gainera!

AITOR. Pilotan gehien kobratzen duenak hobe delako izaten da eta behintzat demostratu egin duelako. Baina hori asumituta eduki behar dugu.

ARRITXU. Errazagoa



Andoni Imaz, Errealeko jokalaria.

al da profesional izatea ezkongabe ala ezkondua izanda?

AITOR. Igual ezkondata hobe, tentazio gutxiago!

ANDONI. Ez dut uste diferentziarik egongo denik.

FELIX. Konpromezurik txikiena dagoenean gauzak aldatu egiten badira, ez dut pentsaterik nahi emazteak eta umeak tartean daudenean!

ARRITXU. Mendien bentaja izango duzue, ez Felix, arbitrorik ez egotean?

ANDONI. Eta nola daki-zu gora ailegatu diren?

FELIX. Desbentaja handia da. Gora iritsi ala ez iritsi, sekulako polemika dago. Eta hori ez dagoela dirurik tartean. Badago beste pekatu bat arbitrorik ez egotean: baloratzeko parametroak erabat aldrebesak bihurtzen direla. Everest-eko puntara heltzen bazara Jaungoikoa zara eta Latok mendiko ipar aldeko paretean 3 metrotara gelditu bazara kriston lanak egin eta gero, ez zara ezer.




Felix Inñurategi, mendizalea.

Maiatzak 1, langileriaren eguna

1. Zer esan nahi du maiatzaren 1ak zuen sindikatuarentzat?

2. Zein da zuen mezua egun horretarako?



1. Ez da langile munduaren bizitzan egun historiko baten ospakizun hutsa, ez eta jai-folklore egun bat ere. Gure ustez, mundu mailako borroka egun bat da eta bertan langileek, finkoek, langabetuek edo ebentualek, gazteek eta pentsiodunek, kalean adierazten dituzte, oiher garbiz, beraien momentuko eta etorkizunerako erreibindikazioak, horrela maiatzaren lari buruz zabaldu ohi diren topikoak gaingaituz. Topiko horiek langile borrokari balioa kendu nahi diote, zentzurik gabeko zerbaite bailitzan.

Euskadin, nazio zanpatuenez, maiatzaren 1ak izaera bikoitza hartzen du: borroka nazional eta sozialaren batura. INDEPENDENTZIA ETA SOZIALISMOA.

2. Maiatzaren 1 hau urtarriaren 27ko greba orokorrean Lan Erreformaren aurka eta otsailaren 19ko Manifestazio Nazionalan Lan Harremanetarako Euskal Markoaren alde adierazitako erreibindikazioen jarraipen bat da. LABek gizar-teari borroka eta mobilizazio mezua zabaltzen jarraitzen du, desindustrializazioa, langabezia eta marjinazio soziala bakarrik ekartzen digun politika neoliberal gordinari aurre egiteko. HONELA EZIN DA!

Faustino Garcia (LAB)

1. UGTrentzat maiatzaren 1ak esanahi bikoitza dauka. Batetik, mundu osoko langileen aldarrikapenak isladatzen eta planteiatzen dira; Chicagon euren eskubideak aldarrikatzen ari ziren hainbat langile hil zituzten eguna oroitzuz. Bestetik, jai zentzua ere ematen diogu, gaur arte eman diren lorpenak ospatu asmoz.

2. Aurten, maiatzaren 1a jai giroan ospatzeak ez du zentzu handirik, batez ere Elgoibarren, jakina baita zein den mementu honetan bizi dugun egoera sozio-laborala. Horregatik, izaera erreibindikatioa azpimarratu nahi dugu, zerbitzu sozialetan eman diren mozketak eta erasoak salatuz. Eusko Jaurlaritza ere salatu nahi dugu, daraman politika industrialaren eta zenbait enpresen jarrera egoistaren eraginez, makina-erreminta desagertzen ari baita, Elgoibarko oinarri industrialarena dena.

Horregatik, elgoibartar guztiei dei egiten diegu UGT eta CCOOekin elkarrekin antolatu dugun manifestazioan parte har dezaten. Enplegu eta solidaritatearen alde, Donostian, datorren maiatzaren 1ean.

Javier Centeno (UGT)


1. 1994ko maiatzaren lehen langileentzat inguruar bar latzen erdian datorkigu; industriaren krisiak eta enplegu galerak goia jo dute eta, aldi berean, lan eskubideak eta gizarte babesak murriztu nahi dituzten politikak ezartzen dituzte. Populazio aktiboaren %23a lanik gabe dago Euskadin, 25 urtetik beherakoen %50a langabezia dago, emakumeen artean industri politikarik eza, langileen aurkako lan erreforma eta babes txikiagoa eta gizarte bazterkeria handiagoa. Sindikatuen erantzuna behar du egoera honek.

2. Egoera hau Elgoibarren ondo ezagutzen dugu, batez ere, Euskadi mailan sektore garrantzitsu den makina-erreminta hemen dugulako. Aspal-di honetan bueltak dabilen enpresen batze edo aliantza, enpresari eta gobernuaren eskuetan ari da luzatzen. Enpresariaren dinamismo ezak eta gobernuaren inplikazio eskasak langabeziaren eskuetan laga gaitu eta irtenbide bakarra espedienteak direla dirudi. Beste ezer egin ezean, enpresak hiltzen lagako dituzte.

Maiatzaren lehenak historikoki izan dituen erreibindikazio sendoenak aurten ere gure lema izango dira, hiriburuetan langileen laguntzarekin egingo ditugun manifestazioetan.

Iñaki Bengoetxea (ELA)

Zer da zuretzat maiatzaren 1a?



JUAN IRURETA
61 urte, torneroa

Sindikatuak ospatzen dabe. Bizitza guztixan lan ein dogu eta sindikatu mailan aztarnarik ez. Ni ez nao sindikauta koope-
ratiban lan itxen dot ta.




LUIS M. MURUAMENDIARAZ
47 urte, tekniko komertziala

Jai egun bat gehiago da besterik gabe. Garai batean erreibindikazio eguna zen baina niretzat gaurregun ez dauka zentzu hori.



ROSA MARI MATA
47 urte, irakaslea

Egun normal bat da neretzako, ez dauka bes-
telako esanahirik. Sindika-
katuen eguna da gehixao eta ni oso aparte senti-
tzen naiz.



ASIER ZENGOTITA
24 urte, langabetua

Sindikatuena baino gehi-
xo guztion eguna da. Gaur egungo egoera iku-
sitxa, maiatzak 1 ez da egun bateko jaixa izan bihar, eguneroko lana baizik.




MARISOL ZABALETA
54 urte, etxekoandrea

Beste egun bat bezala-
kua. Beti izan gera langi-
liak, eta pentsau, emaku-
mientzako gainera! Sin-
dikatuak ez dabe ezer
itxen. Kontra nao, jendia
haserre ipintzen dabe.



MARI CRUZ MENOR
24 urte, esmaltatzailea

Ospatzen dugu enpresa
guztitan jai hartzen dugu-
lako. Jai egun normala
da jendearentzat eta sin-
dikatuak ospakizun bat
da gehiago.



JUARISTI Aroztegia

Egur-aluminiozko **UNIFORM** leihoak, egurrezko leihoen edertasun eta aluminiozkoen teknika batzen ditu.

- ➔ Ez dauka mantenu beharrik
- ➔ Haizea eta urarentzat isolatua
- ➔ Kolore efektu ikusgarriak
- ➔ Betirako leihoak

Arotz, kontratista eta etxe berrikuntzetarako mundiala.

BULEGOA:
Ubitarte, 2 behe. Tel.: 74 13 33

LANTEGIA:
Santa Ana, 16. Tel.: 74 29 94

■ Gestio Eskolak zentruari buruzko bideoa aurkeztu du

Gestio Eskolak ikastetxeari buruzko bideoa burutu du eta joan den asteartean izan zen komunikabideen aurreko aurkezpena. Bideoak, Gestio Eskolako zuzendaria den Jose Mari Ulaziaren hitzetan, “komunikazio, promozio eta publizitaterako tresna izan nahi du, bisitaldietan eta ikastetxeetan aurkezpenerako baliagarri izan daitekeena”. Bideoak Gestio Eskolaren ikasketa planaren ezaugarri nagusiak erakusten ditu gidoi berritzaile bat erabiliz. Eskolak balore kulturalak hedatu nahi ditu, ekonomia, marketing-a, soziopolitika etb. ere lantzen direlarik. Taldeko lanari berebiziko garrantzia ematen zaio, sormen pertsonala ahaztu gabe. Jose Mari Ulaziak hezkuntza orokorra ematea dutela helburutzat aipatu zuen, “enpresari gazteak errealitate soziopolitikoak ulertu eta interpretatzeko gai izan daitezen”. Gestiozintzako lehen ikasturteak 40 ikasle izan ditu aurten eta zuzendaritzaren zein ikaslearen balorazioari kalifikazio bat ematekotan “nabarmen altua” eman dakiokela esan zuen Ulaziak. Aipatu, datorren ekainaren 3an eta 4ean, eskola bisita egiteko zabalik egongo dela nahi duten ikasle eta guraso guztientzat.

Mekanikak eta Institutuak bategitearen aurkezpen ofiziala egin zuten



Lanbide Heziketa Institutuak eta Batxilergo Institutuak bi zentruen bateratzearen berri ofiziala eman zuten joan den astelehenean, hilak 25, Lanbide Heziketako areto nagusian. Gillermo Garate Kultur zinegotziaren aurkezpenaren ostean, Lanbide Heziketako eta Institutuko zuzendariak, Carlos Ansolak eta Anjel Ugarteburuk, LOGSE erreforma zertan datzan eta bi zentruen bateratzearen zergatiak azaldu zituzten eta ikastetxe berriak izango dituen abantailak aipatu ere bai. Batetik, ikasleek eskaintza zabalagoa izango dute: LOGSE batxiler berriari dagokion lehen maila datorren ikasturtean ematen

hasiko dira eta orain arte irakatsi ez diren ikasgaiak irakatsiko dira.

Bestetik, Lanbide Heziketak Burdeoseko lizeo batekin burutzen dituen interkanbioko programa europarraren berri eman zuen beronen arduraduna den Luis Beobidek. Lizeo frantsesarekin harremanak guztiz sendoak eta errotuta daudela adierazi zuen eta Ingalaterra eta Alemaniako ikastetxe batzuekin ere lehen urratsak emanak dituztela gaineratu zuen. Administrazio atalean egin badira ere orain arteko interkanbioak, dagoeneko automozioiko talde bat Frantziara dagoela azaldu zuten.



Dina Bilbao triathloilari ezaguna izan genuen Kultur Etxean asteazkenean. Gaia “Emakumea eta kirola” izan zen eta horren bueltan zenbait diapositiba eman ondoren, bere esperientziak azaldu zituen ondarrutarrak. Bere komentarioak batetik, eta hurbildu zirenen galderak bestetik, guztiak ere gustura agertu zirela esan daiteke. Igande honetan Elgoibarren ospatuko den duathloirako giroa epeldu asmoz, *Urgazi* Triathloi taldeak antolatu dituen ekintzen barruan sartzen zen honako hau ere bai.



■ Rosa Maria Sanchezen erakusketa Kultur Etxean

Rosa Maria Sanchez gernikarrak 25 margo erakusgai izango ditu Kultur Etxeko erakusgelan, hilaren 29tik hasita datorren maiatzaren 15era arte. Margolari polifazetiko honek, denetarik esperimentatu du: erretratua, paisaia, figura, bodegoaiak eta gai surrealistikak. Rosa Mariak erakusketa ugari egin ditu dagoeneko. Azken erakusketa iaz egin zuen Santanderren eta sariak ere irabazi ditu.

■ Hau da hau urte pila!

Gorostiza tabernan, Elgoibarko tabernarik antigualenean, aurten 37. Binakako Mus Txapeleketa jokatzeko da. Finala ostiral honetan bertan, apirilak 29, izango da, gaueko 9'30etan. Karlos Mugerza eta Joseba Trueba elgoibartarrak, Eibarko Gorostegi anaien aurka arituko dira. Sari banaketa ere jarraian izango da.

■ Herri Urrats

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak aurten ere autobusak antolatu ditu Herri Urratsera joateko. Aurten maiatzaren 8an Senpereko lakuaren bueltan izango da. Izena maiatzaren 6a baino lehen eman beharko da elkarteak Ubitarten duen lokalera azalduz. Prezioa 900 pezeta.

■ Familia euskaldunetan egonaldiak

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak 1994rako "Egonaldiak familia euskaldunetan" plangintza antolatu du. Egonaldia uztailetik irailera bitartean luzatuko da ikasle ororen egonaldiaren iraupena hilabetekoa izango delarik. Informazio gehiagorako Udaleko Euskara Zerbitzura zuzendu (Nafarroa enparantza) edota 74 43 66ra deitu.

Ikastolak, Udalaren laguntzaz antolatutako I. Haur Krosean 400 bat hurrek hartu zuen parte. Eguraldiak ez zuen batere lagundu baina Plaza handian, hala ere, jendetza bildu zen. Lasterketa haur guztientzat irekia zegoenez Elgoibarko eskola guztietako ikasleek korritu zuten. Partaidetza uste baino handiagoa izan zenez, antolatzaileak oso pozik daude. Haur guztiek saria izan zuten, helburua horixe baitzen: partaidetza saritzea, alegia. Honez gain, maila bakoitzeko denborarik onena ere saritu zen. Ikastolak eskertu nahi du hainbat pertsonak emandako laguntza, hala nola, Udaletxea, Ego-Toki, Udaltzaingoa, Gurutze Gorria eta zenbait guraso, irakasle eta lagun. Lasterketen irabazleak hauek izan ziren: Joanes Rodriguez, Markel Bergara, Alberto Castro, Silverio Lorenzo, Xabi Peñaranda, Nuria Revuelta, Joseba Gonzalez, Egoitz Martinez, David Garrido, Unai Arrieta eta Fernando Mendieta.



Elgoibarko Udalak antolatutako **haurrentzako ludoteka** inauguratu berri dute Kultur Etxeko ganbaran. Haur mordoska bildu zen igandean bertan jarritako jokuetaz gozatzeko. Hurrek futbolinean, pinponean, saskibaloian eta mahaiko jolas mota ezberdinetan aritzeko aukera izan zuten. Ludoteka igandero egongo da zabalik, arratsaldeko 3,30etatik 7,30etara bitartean. Jakin 6 urtetik 13 urtera arteko hurrek har dezaketela parte bertan eta haur bakoitzak ordaindu beharrekoa 200 pta dela.

Angela Zabaleta Aizpitarte:

"Ahotsaren heziketak badu garrantzirik"

Beste gauza asko bezala, badirudi ahotsa ere hezi beharreko elementua dela, edo lantzea komeni dela, gutxienez. Angela Zabaletak ahotsarekin egiten du lan. Gaztetan kantu ikasketak egin zituen, operako abeslaria izan nahi zuen, baina...

Bere amets hura bertan behera utzi behar izan zuen. Hala ere, sekula ez du musika mundua alderatu. Gaur egun, polipoak eta noduloak sendatzen ditu, kantuko klaseak ematen eta emakumez osaturik dagoen Eibarko *Goruntz* abesbatza zuzentzen du.

- Kasualitatez hasi zinen musika munduan, ez?

- Bai. 17 urterekin, Donostiako eskolan nennibilela jai bat egin genuen eta bertan kantatzen nengoela Aita Beobidek, musikoa bera, entzun zidan. Hark esan zidan ahots zoragarria nuela eta joateko M. Teresa Fernandez Usabiagarengana, berak emango zizkidala kantu ikasketak. Berarekin hasi nintzen opera egin asmoz. Gero, *Maite* abesbatzako eta Donostiako Kamara Koraleko partaide ere izan nintzen.

- Donostiatik Bilbora eta handik Biarritzera. Baina Italiara joateko asmoa zenuenean...

- Bai, nire ilusioa Italiara joatea zen, hura baita "Bell Canto" deritzanaren jatorria. Baina amak pertsona batzuekin hitzegi zuen eta haiek ez uzteko joaten aholkatu zitoten mundu hura bizio txarrez bete zegoelako eta arrakasta izateko edozer egin behar izango nuelako.

- Eta Cadizera joan zinen.

- Musikari diru eta denbora asko eskaini nizkion. Cadizera jo nuen eta hotel batean egon nintzen, urtebete idazkari bezela eta beste bost



"'Canción española' eta Heavy taldetako ikasleak ere badituzte".

rezeptzioko nagusi bezela.

- Erabat moztu al zenuen musikarekin?

- Ez. Cadizen ere eman nituen zenbait kontzertu. Gero, Elgoibarrera itzuli eta txutxeria denda bat jarri nuen, Eibarren. Behin, Aspace-n lan egiten zuen lagun batek laguntza eskatu zidan minusbalidoi ahotsa hezitzen laguntzeko. Horrela hasi nintzen. Orain, *Goruntz* abesbatza ere zuzentzen dut, emakumez osaturiko taldea da.

- Ahotsa ere hezitu behar al da?

- Bai, noski. Jaiotzetik denok ondo izaten dugu ahotsa, erabilera desegoki batekin okertzen da. Irakasleak dira batez ere arazoak izaten dituztenak, beren laneko tresna baita. Ahotsari ez diogu garrantzirik ematen, forzatu egiten dugu eta, noski, izorratu egiten da. Ronkerak sortzen dira, polipo eta noduloak, kiste txikiak ahots-kordatan.

- Eta zèin da hitz egiteko erarik aproposena?

- Posturak zerikusia handia du, eseritzeko daukagun erak. Ahotsa bidali

aurretik gorputz osoak egon behar du prest. Postura, erlaxapen aktiboa (gorputza erlaxatua, baina burua ahotsa bidaltzeko prest) eta, arnas ariketak oso garrantzitsuak dira.

- Polipoak ez al ditu medikuak sendatzen?

- Nik jende guztiari esaten diot lehendabizi medikuarengana joateko. Otorrino ezberdinak daude: batzuek lehenengo operatu eta gero ahotsa hezitzearen aldekoak dira, beste batzuek, ordea, lehenengo ahotsa hezitu eta gero, beharrezkoa bada, operatzearen aldekoak. Ni, noski, lehenengo hezitzearen aldekoa naiz. Nik landu ditudan pertsonak ez dute operazio beharrik izan. Normalean hiru hilabete behar izaten ditut, lau asko jota.


- Topiko bat: ahots on bat jaiotzaz ala hezitzeaz?

- Ahots on bat jaiotzeaz ematen da, dudarik gabe, baina guk uste dugun baino askoz ahots hobea daukagu, landu egin behar da. Izan dut kasu bat baino gehiago nigana poli-poengatik etorri zirenak eta amaitzean, hainbeste gustatu zitzaizkien beraien ahotsa, orain musika taldeetan kantatzen dutela.

Zer diozu Kurutzperen etorkizunaz?

JUANJO GOIKOETXEA, 61 urte, dendaria

Antolaketa berri bat eman beharko zen, baina hala ere partizipazioa eskasa izango litzateke. Nire adineko jendea laguntzeko prest egongo zela uste dut.



MARI ANGELES AZPIAZU, 52 urte, dendaria

Antolaketa berri bat eman beharko litzatekeela uste dut baina gazteei begira eta gazteek zuzendurik. Udaletxeak papel handia betetzen du, baina Kurutzpe beharrezkoa da. Jendearen parte hartzea oso garrantzitsua da.



AMAGOIA ZABALA, 25 urte, gizarte laguntzailea

Bazkide guztien artean sakondu beharko litzatekeen galdera dela uste dut. Animazio soziokulturala denon erresponsabilitatea da, baina honen ardatz nagusia Udaletik etorri beharko litzateke.



BEGOÑA URBIETA


19 urte, ikaslea

Mendarok beharrezkoa du Kurutzpe. Izena aldatu gabe, berean jarraitu beharko luke nahiz eta berrikuntza batzuk behar. Jendearen partehartzea ezinbestekoa da.



JUANJO LOIOLA, 33 urte, tabernaria

Mendarok Kurutzpe beharko du eta Kurutzpek Mendaro. Udaletxea eta Kurutzpe elkarrekin joan behar dira baina agian berri egin beharko litzateke.



AITOR ETXEBERRIA, 35 urte

Kurutzpe berri behar bada sozioekin asanblea orokor bat egin beharko litzateke baina direktiba aukeratzeko orduan kuadrila desberdinetako jendeak hartu beharko luke parte, ekintzetan barietate gehiago egoteko.



Zer gertatuko da krosarekin?

Zer gertatuko da errege kabalgatarekin?

Zer gertatuko da Olen-tzeroarekin?

Eta zinearekin, futbitoarekin, mendi irteerekin, Nafarroa Oinez, Kilometroak eta Ibilaldirako autobusekin, eskursioekin, hitzaldiekin, jaietako gazteen egun eta Udazken jaiarekin, pin-pon lehiaketarekin eta abar luze batekin?

Guzti hauek orain arte ohargabeen pasatu badira ere, zer gertatuko da aurtengo urte honetan falta direnean?

Kontutan izan behar da, Kurutzpe izan dela Udalen gazteekiko jarrera pasiboa apurtu nahian aritu dena. Udala, Kurutzperi emaniko diru kopuruaren bidez herri honetan kulturarekiko zorra ordaintzen saiatzen da.

Bestalde, aurtengo direktiba nazkatu da tabernan hitz goxoak entzun eta parte hartzeko orduan jendeak bizkarra emateaz.

Azkenik, esan nahi dizuegu, aitzakia merkeak asmatzeko garaia amaitu dela, PASIBITATEA, KONPLIZITATEA.

KURUTZPEKO
ZUZENDARITZA

Gazteen eguna

Mendaroko Udalak batzar bat antolatu du Gazteen egunaren antolakuntza dela eta. Horregatik, eta egun hori behar bezala eta denen gustura egitaratu asmoz, herriko gazte taldeen ordezkari guztiei dei egiten die aipatu batzarrera joan daitezten. Maiatzaren 2an izango da, arratsaldeko 7etan eta Udaletxean bertan.

Jubilatuen elkartea

Mendaroko Udalak, hirugarren adineko dinamizazio taldearen laguntzarekin, hitzaldi bat antolatu du Mendaroko jubilatuek guztientzat. Hitzaldia, datorren maiatzaren 5ean izango da arratsaldeko 6etan. Tokiari dagokionez, berriz, Kultur Etxea. Gaia bera ere interesgarria aurrikusten da, izan ere, Jubilatuen elkartearen sorrerari buruz mintzatuko baita. Hitzaldian Gipuzkoako, Deba Beheko, Elgoibarko eta Debako Jubilatuen Egoitzetako presidentek beraien esperientzak kontatuko dituzte. Joaten direnei, KUTXAK eskainitako opari bat banatuko zaie eta, amaieran, sorpresa bat ere izango da.

Maiatzaren 14an hasiko da III. pilota txapelketa

Mendaroko Udalak antolatuta, aurtengo edizioan Zestoa, Aizarnazabal, Mutriku, Deba, Elgoibar eta Mendaroko bikoteek parte hartuko dute nagusien mailan. Paleta modalitateko partiduak astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 7etatik 9etara; eta larunbatetan, goizeko 1etatik 1era, jokatuko dira maiatzaren 14tik

aurrera. Eskuzkoak, ostera, maiatzaren 22an hasiko dira, eta goizeko 11etatik 1era jokatuko dira igandero. Gaztetxoek mailan Mendaroko ikastolako haurrek parte hartuko dute, maiatzaren 2tik aurrera, astelehen, asteartea eta ostegunero, arratsaldeko 5etatik 6etara bitartean. Finalak uztailean izango dira.



Iazko Txapelketako irabazleak esku pilotan

1994ko Santa Ana jaien kartel eta egitarau azalaren lehiaketa

Mendaroko Udalak 1994ko Santa Ana jaien kartel eta egitarau azalaren lehiaketa antolatu du. Oinarriak ondokoak izango dira: Txartelaren neurria 68x48 zmkkoa. Teknika librea eta euskarri gogorrarekin. Diapositibetan ezik, ezinbestekoa izango da ondorengo testua agertzea: "Santa Ana Jaiak, 1994ko uztailean 22tik 26ra. Mendaro."

Mendaroko edozeinek har dezake parte eta lehenengo saria 25.000 ptakoa izango da. Lan guztiak izenik gabe aurkeztu beharko dira kartazal itxi batean egilearen datuak joango direlarik. Aurkezteko azken eguna maiatzaren 20a da. Informazio gehiago nahi duenak Mendaroko Udaletxera jo dezake.

Ikastolako Kirol eguna

Arno guraso Elkarteak antolatuta, datorren maiatzaren 14an Kirol Egunaren 4. edizioa ospatuko da Ikastolako ikasleen partaidetzarekin. Egun horretan Ospas-Gain futbol zelaian, goizean zehar, ikasleek lehiaketa ezberdinetan (korrika, pisu jaurtiketa, altuera jauzia, erreleboak, futbola...) parte hartuko dute. Era horretan ikasturte kanpainari amaiera emango zaio.

Mendi irteerak

Maiatzaren 1ean, igandea, egun guztiko irteera egingo da Urbiara. Irteera, goizeko 8,30etan, tren geltoki paretik izango da. Prezioari dagokionez ikastolako ikasleek dohainik izango dute; gainontzekoek 1000 pezeta ordaindu beharko dute. Maiatzaren 22an, berriz, egun guztiko irteera burutuko da Larrunera. Irteera goizeko 8,30etan izango da toki beretik. Ibilaldira joan nahi duenak ikastolan eman beharko du izena maiatzak 20a baino lehen (75 61 41). Prezioa Ikastolako ikasleek dohainik izango dute eta gainontzekoek 1000 pta.

ASPALDIKO KONTUAK

...eta begizkoa bota zidan

Neska koskorra izango nintzan ni artian eta aita, nere bi ahizpa eta laurok, joan ginan Debara arratsaldia pasatzera. Aita joan zan enkargu bat egitera eta bitartian, hiru ahizpok, pasiaran genbiltzan eta gure onduan, bizpahiru señora guri begira. Nik, sasoi hartan, ilea kizkur-kizkurra neukan eta señorak haritxi begira zeuden ba. Beraien artian neria ez zala benetako ilea izango zebiltzan, eta halako batian, galdetu zidaten ia neuria zan ala ile postizua neraman eta nik, baietz, neuria zala. Orduan, galdetu zidan haretako señora batek utziko al nion ilea ukitzen eta berriz ere baietz. Atzamarrez ilea orrazten hasi zan eta min ematen bazidan ere, ez nuen nik ezer esan. Halako batian, aita azaldu eta galdetu zigun ia zertan genbiltzan eta guk kontatutakoa azaldu genion eta besterik gabe bueltatu ginen etxera. Goizero bezala ama ilea orrazten ari zitzaidala, konturatu zan ile guztia, orratzian gelditzen zala. Nik hura ikusi nuenian egin nituen negarrak! Ama ni ezin kontsolaturik zebilela, han nun azaltzen dan

amama. Berak galdetu zidan zergatik egiten nuen negar eta kontatu nion, bezperan gertatutakoa. Segituan, horrela esan zuen:

- Emakume horrek begizkoa egin zizun atzo. Baina ez egin negar maittia, laister konponduko degu eta.

Orduan aitari begiratu eta esan zion:

- Joan zaitez eta ekarrizu Parrokiatako ur bedeinkatua.

Halaxe aita joan zen eta Garagartzako Parrokiakoa, Aitzpilgoetakoa eta Altzolako Parrokiko ura ekarri zuen. Etxian, amamak ura hartu eta ilea busti-busti egin zidan eta halaxe sendatu zitzaidan emakume harek egindako begizkoa.



MARTZELINA ZABALETA



Ana Mari Mallabiabarrena

■ **Zure lanbidea?** ■ Etxekoandrea, baina inbernaderoetan ere jarduten det.

■ **Zenbat ordu etxetik kanpo lanean?** ■ Neguan oso gutxi, udaran ordu gehienak.

■ **Ohituraz ala gustuz?** ■ Gehienbat ohituraz, baserrian jaio nintzelako.

■ **Barazkirik gogokoena?**

■ Letxuga.

■ **Eta gutxien atsegin duzuna?**

■ Tomatea, oso lan zaila eta zikina duelako.

■ **Urtarorik onena baserrian?**

■ Gehienbat uda eta udazkena, orduan jasotzen baitira emaitzarik onenak.

■ **Zer lantzen duzue baserrian?**

■ Barazkiak: tomateak, letxuga, bainak... fruituak ere: kiwiak, sagarrak, madariak,... loreak eta esne piska bat ere bai.

■ **Barazkiak saltzeko lekurik onena, merkatua, etxeak ala dendak?** ■ Hiruak probatu ditut eta nahien dudana dendetara da, errezena delako.

■ **Gehien gustatuko litzaizukeen ofizioa?** ■ Janari denda batean lan egitea.

■ **Baserria eta bertako gauzak aldatuko al zenituzke zerbaiten truke?** ■ Bizitza lasai bategatik, baina besterik ezean, gustura nago daukadanarekin.

Jon Salegi "Sarube": "Marmitxarekin hasi nintzan harrijasotzen, aitari imitatzen"

- Zenbat urte harriekin "jolasean"? - 6 bat urte.

- Zer dela eta harriekin eta ez beste zerbaitekin? - Aitarengandik dator kit afizioa, bera harrijasotzailea zelako. Bostpasei urte nituela aita plazan harrijasotzen ikusi eta etxera iristean marmitxarekin hasi nintzan aitari imitatzen.

- Saririk? - Kintopian (21 urtetik behera) 3 urtian, Euskadiko segundako txapelketa bi urtetan eta herri arteko konpetizioetako sariak.

- Konpetizioetarako urte sasorik onena? - Udia, herrietan jaiak direlako.

- Bizitza atera al daiteke harrijasotzaile izatetik? - Ez, on ona ez baldin bazera, ez. Perurena bezalakoa izanez gero, bai.

- Idolorik? - Goenatxo eta Perurena.

- Zenbat denbora pasatzen duzu entrenatzen eta zertan? - Astean

hiru aldiz. Gimnasia egiten dut (pesak), baina onena mendian ibiltzea da hankak gogortzeko.

- Harrijasotzaile gazterik ba al dator? - Batzuek ari dira entrenatzen baina guraso askok ez die uzten.

- Zein da zure helburu nagusia? - Euskadiko txapeldun izatea.


- Nola konbinatzen duzu gazte izatea eta harrijasotzea?

-Orain dela urte batzuk golferixan ibiltzen nintzan baina orain asko lagata nago eta serioago hartu dut gauzia.

- Harrijasotzen zabilzanetik zein izan da momenturik politena?

- Euskadiko segundako txapelketa lehenengo urtean irabazi nuenean Mallabin.

- Mendaroko jendeak ba al du herri kiroletarako afiziorik? - Mendaroko jende gazteak afizio gutxi dauka.



- Ondo iruditzen al zaizu Deba Beheko herrien artean egiten zen konpetizioa kentzea? - Penagarria izan da herrien arteko pikea sortzen zelako eta giro ona zegoelako ikusleent artean.

- Orain dela 15 egun Orion eduki zenuen txapelketan bigarren geratu zara. Gustura? - Bai, gustura nago baina nere burua gehiagorako ikusten dut.

- Euskadiko txapelketa maiatzaren azkenetan da. Zer esperantza duzu? - Lehenengo hiruen artean geratzea.

4

kiliBARREN

Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Aitziber Gurrutxaga, Iraide Loiola, Oihana Tarragual, Alaitz Vives, Garbiñe zabala.



Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

Katebi

Liburudenda

Fotokopiak

Enkuadernaketak

Eskolako materiala eta Liburuak

Jaunartzerako opariak

San Bartolome, 5
☎ 74 04 98

Herri Urratsera Autobusak

- Maiatzaren 8an, SENPEREN.
- Prezioa: 900 pta.
- Izena emateko: ELGOIBARKO IZARRA K.E. (Maiatzaren 6a baino lehen)

ANTOLATZAILEA:
ELGOIBARKO IZARRA
Kultur Elkartea



LAGUNTZAILEAK:
ELGOIBARKO UDALA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



Garbiñe Aranzeta

Garbiñe edergintzako



- **Ispiluek errealitatea isladatzen al dute beti?**
 - ▶ Nik uste dot baietz, ez du engainatzen.
- **Krema milagrosorik ba al da?**
 - ▶ Milagrorik ez dago baina asko laguntzen dute.
- **Milagrorik onena prebentzioa al da, beharbada?**
 - ▶ Bai. Arazoa sortu denean, zaila da sendatzea.
- **Nabaritzen al da bezeroen artean gizonen kopuru ugariagoa?**
 - ▶ Asko kostatzen zaie, baina hasi dira etortzen, batez ere gazteak. Hala ere, garrantzi handia ematen diote besteek esan dezaketinari.
- **Makilaiaren aldekoa al zara?**
 - ▶ Bai, baina naturala.
- **Zein da naturalitatearen sekretua?**
 - ▶ Niretzat norberak duen gauzarik politena resaltatzen jakitea.
- **Eta ba al dakigu?**
 - ▶ Jendeak beharbada modari kasu gehiago egiten dio. Begi gaineko arraia eramaten bada hori margotzen du, nahiz eta berari ondo geratu ez.
- **Edertasuna objetiboa al da?**
 - ▶ Publizitateak eragin handia dauka; gaur argala egotea ederra da, bihar formak gehiago eramaten dira... Halere norberaren gustuen araberakoa dela esango nuke, edo izan behar luke.
- **Dutxa hotz bat ala bainu bero bat?**
 - ▶ Depende, baina ni normalian epelekua naiz.
- **Gorputza ur azpian ikustea ala bits artean imajinatzea?**
 - ▶ Espuma artean sujeritzia.
- **Kremak ala olioak?**
 - ▶ Normalean olioak askoz efektiboagoak izaten dira.
- **Erlaxatzeko sauna ala masaia?**
 - ▶ Masaia.
- **Masaiak eman ala hartu?**
 - ▶ Ematea ere gustatzen zait, nire lana da.
- **Zure gorputzeko zein atali egingo zenioke aseguru bat?**
 - ▶ Eskuei, nire lan tresna dira eta.
- **Porzelanazko azal zuria ala eguzkiak ilundutako beltzarana?**
 - ▶ Zuritasuna gaisotasunarekin identifikatzen dugu eta kolore piskatekin hobeto gaudela uste dugu. Dena den, ondo zaindutako azal zuria politagoa da.

APIRILEKO EGURALDIA

DOINUA:

Aizak hi mutil mainontzi

Hil honen alderdi txarra urteroko deadarra negu gisako eguraldia sufritu beharra euria ta kazkabarra egunero barra barra kukuak ere ez dauka aurtan umore edarra. (Bitan)

Udaberriko lorea izan arren dotorea aurtan euriak kendua dio bere kolorea jendeak du nahigabea baina ez galdu fedea ia maiatzak azaltzen digun aurpegi hobea. (Bitan)



ZIARDA

B
E
R
R
I
T
O
T
A
I
N



Classy

LIBURUDENDA



- ★ OPARIAK ★ FOTOKOPIAK ★ FAX PUBLIKOA ★ ENKUADERNAKETAK
- ★ ESKOLARAKO MATERIALA ★ TESTU ITZULPENAK INGELESERA

SAN FRANTZISKO 56.

TEL.FAX: 74 02 40

ELGOIBAR

TIRO RIRO



San Frantzisko, 54. 74 13 86



1994ko urtarrileko erroldaren datuak

1994ko urtarrilak Iari dagokion erroldak publiko aurrean jarriko dira apirilak 25tik maiatzak 2ra bitartean. Zuzenketak epe horretan egin ahal izango dira Udaletxeko Idazkaritzan.



Diru ordainketak

Hirigintza Sailaren proposamenak:

- Leku-Eder-en jarri diren haurrentzako jolasengatik 1.518.580 ptaren ordainketa Arrizabalagari.
 - 2.343.350 pta Norte Industrial enpresari herriko kaleetan bide-marrak margotzeagatik.
- Ongizate Sailaren proposamena:
- 62.185 pta Kalamua Kooperatibari, martxoko etxez-etxe laguntza erregulatzeagatik.

Udalak DOT-ei buruzko emendakinak aurkeztu ditu

Euskal Elkarte Autonomoaren Lurralde Ordenaziorako Irizpideei (DOT) emendakinak burutzeko epea maiatzaren 2an bukatzen da. Elgoibarko Udalak, Deba Beheko Udaletxe guztiekin batera eta DEBEGESAREN izenpean, bailara mailan, Eusko Jaurlaritzak egindako Lurralde Ordenaziorako Irizpideei (DOT) buruzko emendakinak aurkeztu ditu. Elgoibarki dagozkion emendakin garrantzitsuenak honako hauek dira:

1- Herriko alde zaharraren berreskuratze prozesua bizkortzea herriko ondarearen zaharkitzea ez gertatzeko. Arkeolan enpresak egindako alde zaharri buruzko ikerketa historikoa aintzatzat hartzea eskatzen du Udalak.

2- Lur industrial berria sortzearen aurka dago Udala, gure zonaldeko poli-

gono industrialak garatzen ez diren bitartean. Herriko industria zaharrak edota gaizki kokatutakoak berriro ganoraz bideratu beharko dira herrian bertan, horrela kanpora eramatea ebitutzuz. Industria hauen kokapena erraztu beharko da Lerun, Lerun txiki-Morteri-ka eta San Lorentzoko lur industrialak promozionatuz. Halaber, San Pedro (20.000 m²rekin) eta Albitxuri (45.000 m²rekin) Elgoibarki dagozkion sailean sartzea eskatuko du Udalak.

3- Gure zonaldean unibertzial ikasketen espezialitateak egiteko aukera egon dadin eskatzen da (injenieritza-tako adarrak esaterako). Honez gain, Eibar-Donostia eta alderantzizko tren zerbitzua ordurokoa izatea eskatuko du.

4- Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeo, lurak erosi eta hauetan

inbertsio publiko-ak promozionatze-ko aukera izatea. Herriaren egitura osatzeko eta periferiako zonaldeen integrazioa lortze-ko, beharrezko azpiegituren eta bialen ejekuzioa bultzatzea ere nahi du Udalak.



UDALETXEKO LANGILEAK EZAGUTZEN



▲ **IZENA:** Miren Arozena

▲ **ADINA:** 30 urte.

▲ **LANPOSTUA:** Liburutegiko auxiliarra

▲ **FUNTZIOA:** Ze liburu erosi behar diren erabaki. Sartzen den guztia erregistratu, katalogatu eta klasifikatu, jendeari arreta...

▲ **NOIZTIK LANPOSTUAN:** 1991. urtetik.

▲ **ALDE TXARRA:**

Umeen zarata, askotan jasan ezina izaten da.

▲ **LANAREN ALDE ONA:**

Alderantzizkoa. Oso jende atsegina ere etortzen da. Hoiei laguntzea, aholkatzea eta zuk esandakoa gustura irakurri dutela jakitea oso pozgarria da. Jende asko ezagutzen duzu, beraiekin konfidantza hartuz.

Altzola dorretxea

- Izenari dagokionez, dokumentu gehienetan "Behekodorrea", "Beheko plazako dorrea" eta "Kalebarrengo dorrea" irakur daitezke. Gehien erabiltzen zirenak, Dorrea eta Dorrekua dira. "Altzola dorretxea" deitura gaur egungoa da. Bertako harmarriari eta maiorazgoari dagokion izena da.
- "Markinako Villamayor" sortu zenean, Dorrekua harresitik kanpo geratu zen, Kalebarrengo plazaren bazter batean.
- Kalebarrengo zen garai batean, batez ere XVI. mendean, plazarik garrantzitsuenak. Bertan, Kontzeju etxea, alondegia eta San Frantzisko eliza zeuden.
- Altzolatarren dorretxeaz ezagutzen diren lehen berriak XIV. mendekoak dira. Hiri-gutunaren (Carta Puebla) arabera hiribildua iparraldetik harresiz inguratzen denean, kontzeju eta dorretxearen jabearen arteko desadostasunagatik "Dorrea" harresitik kanpo geratu zen.
- Egoera hori zela eta epaiketa egin zen. Izan ere, dorretxeak, harresitik kanpo egotean, ezingo baitzuten barrukoek zuen zenbait eskubidez gozatu.
- Korregidoreak harresia aldarazi zuen baina, hala

ere, arazoek jarraitu zuten. 1484an kontzejuak alde batetik eta Juan Otxoa Brunanokoa eta honen suhia Karkizanoko Rodrigo bestetik, akordio batera iritsi ziren.

- Larrialdi uneetan eraikina biltoki bezela erabili zen. Honi buruz, L.M.Ezenarro apaiz historigile elgoibatarrek honako hau esan zuten: "Eta 1560ko sutean, Elgoibarrek historian jasotzen duen lehen hondamendian, Kontzeju etxea ere suntsitu zen. Orduan, herritarrek Dorretxearen-garai hartan Asensio Altzola kapitainarena- areto nagusian bildu ziren eta kontzejuak burutu zituzten herriaren berreraikuntza erabakitzeke. Besteak beste, eraikuntza berrien materiala eta altuera arautzen zituzten ordenantzak xedatu ziren. Herrien arabera, etxe berriek harrizkoak edo berganazozkoak izan behar zuten karez edo arez estalita; ohola erabiltzea, zoluetakoa ez bazen, debekatzen zelarik".

PELLO ARRIETA



Leon Zengotita "Pequeño de Elgoibar" (1892-1945)



- Leon Zengotita Arzuaga 1892. urteko otsailaren 18an jaio zen.
- Pilotarien "Escuela panplonica"ko zuzendari izandako batek, zera dio Leoni buruz: "Izugarría zen erremontean, palan eta esku pilotan ere bai".
- Logroñon Leonek, berak bakarrik, orduko hirukorik onenaren aurka jokatu zuen erremontean: Zumeta, Pasieguito eta Romanico pilotariak osatutako hirukotearen aurka. Partidua 50 tantutara izan arren, "Pequeño"k erraz irabazi zien.
- Egun batzuk beranduago berriro irabazi zien, sakean abantaila emanaz.
- Iruñan, Murillo eta Fernandezi 50 tantutara irabazi zien.
- Palan, Begoñes Iarekin bi partidutara jokatu zuen. Bietan erraz irabazi zuen.
- 15 urterekin pilotari onenekin jardun zuen.
- Inoiz ezagutu den erremontistarik onena zela diote.
- 1945. urte inguruan hil zen.

DEKORAZIOA



PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

ARAZOAK ZURE AHOTSAREKIN?

Landu ezazu!

Polipoek, noduloek, ahotsaren erabilera okerrak, etab...
ERAGINDAKO RONKERAK

ANGELA ZABALETA AIZPITARTE

KANTU IRAKASLEA

DEITU ☎ 74 15 56 - 11 03 51

MOTZAK

Gorka Garate judoka, Euskadiko txapelkun orde

Gorka Garate judoka gazteak, Euskadiko judo txapelketan bigarren postua lortu zuen joan den igandean Gasteizen izandako txapelketan. 13 urteko judoka honek 15 urte azpiko eta 50 kiloko mailan lortu zuen txapelkun ordearen titulua. Gorkak gogor borrokatu zuen Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko judoken aurka. Honako hau Euskadi mailan Gorkak lortzen duen lehen domina da. Gorka ondo aritu zen haseratik. Finala Bizkaiko ordezkariaren aurka jokatu behar izan zuen, eta azkenean ezin izan zion irabazi deskuidatu egin baitzen Gorka. Kontutan izan behar, Gorka bere lehiakideak baino urtebete gazteagoa dela eta beraz, bihar etzi emaitza ezin hobek lor ditzakeela.

Larunbat honetan, hilak 30, kontzentrazio batean hartuko du parte Gorkak.



Xabier Loiola:

"Jairik jai hasi nintzan bolo jokuan"

■ **Nola doa Gipuzkoako Bolo Txapelketa? Eta zuek?** -Klasifikazioan lehenbizi eibartarrak dijuaz. Guk bigarren saian piskat failiau in gendun eta oin ia atzera berreskuratzen doun zeozer.

■ **Nundik nora doa txapelketa?**

-Hasi Aretxabaleta, Elgoibar, Eibar, Plazentzia... danak sartzen dia. Ekipoka apuntatzen da, bost taldeko, eta bakoitzak bolatoki bat ipintzen dau. Horrela, astero astero txandaka ibiltzen gera, batian jokatu eta gero bestian. Puntuazio bat dago eta bertan apuntatzen doaz. Txapelketa berean banakakoa, parejakoa eta taldeko sariak daude. Gainera, jaurtialdi bakoitzeko hiru bola dia eta leku bakoitzeko azken tiradak Presidentian Trofeorako puntuatzen dau.


■ **Iaz Gipuzkoako txapelkun eta Euskadiko bigarrenak. Aurtentzer asmo?** -Indibidualki taldeko bat bastante ondo dijua, sailkapenian lehenengo dijuanetik bi txirlotara (boloarekin bota behar diran makilak).

■ **Zein fasetan dago txapelketa?**

-Hau hirugarren saia da eta beste hiru gelditzen dira. Azkena San Migelen jokatu da.

■ **Nola hasi zinen zu bolo jokuan?**

-Herrixetan jaixak ziala ta bertara hurbildu, bola jokua zauala eta probatzen hasi, gustau eta hola-



xe.

■ **Bolo jokua beherantz doa alagorakada bat somatzen al da?**

-Nik aitxari ta entzun diuet bajau in dala. Lehen bolatoki gehixao zaua. Oin, en kanbio, toki gitxio eta afizioa ere gitxio.

■ **Jokua ala kirola?** -Kanpeonatueta kirola da, ostantzian jokua, apostuekin eta lotuta egoten da eta. Garai batian askoz apostu gehixao itxen zan, gaur egun saltsia emateko besterik ez da izaten. Diru asko ez da jokutzen, gehixenbat lagun arteko momentua izan ei da.

■ **Ondo jokatzeo: teknika, intuizioa ala punteria?** -Onena asko ibiltzia da. Urtebetian ibili be egoten bazera asko galtzen da eta gero hasterakuan kostau.

■ **Trukorik?**

-Badaude, zeuk ipintzen ditxuzu.

• Adina: 24
 • Asteko egun bat? Eguena, astebukaeria bertan dauala esan nahi dau eta.
 • Bertsolari bat? Angel Mari Peñagarikano.
 • Erromerixa zalea? Bai, beti ibili izan gera jairik jai, dantzan eitzen.

Zeuk moladatzen eta egokitzen dozu pistia ere, aldapatsuagoa indartsu botatzeko edo lautsuo poliki botatzeko. Lurra ere busti xamarra egotia komeni da, hola boliak salto gitxio ematen dau.

gR goki eRreformak, s.l. DEBA KALEA 12
 TEL.: 74 42 23
 20870 ELGOIBAR

ERREFORMAK
GARBIKETAK
OBRAK OROKORREAN

GRANDALÓ
 O I H A L A
 eta
 MERZERIA
 Errosario 8. Tel:74 35 95

Maitzaren 1ean, Duathloia Elgoibarren

Urgazi triathloi taldearen eskutik, Euskadiko zirkuiturako puntuagarria den duathloia izango da datorren igandean, maiatzak 1. Lasterketa goizeko 9,30etan hasiko da Plaza handian eta ordu t'erdi edo bi orduko iraupena izango du. Diputazioarekin errepide nazionalako trafikoa moztu behar zela eta, arazo ugari izan dituzte Urgazi taldeko antolatzaileek baina arazoa gainditu eta gero, desio bakarra betetzea nahiko lukete: eguraldia lagun izatea.

Aurten 250 korrikalaritik gora parte hartuko dute Urgazi triathloi taldeak Udalaren babespean antolatutako duathloi honetan. Iaz Gipuzkoako txapelketa jokatu zen Elgoibarko duathloian baina aurten ez zaio gure herriari txapelketa hori egokitu. Igandeko lasterketan Sebastian Lertxundi ondarrutarrak eta Jesus Larrañaga mendarotarrak, iazko Gipuzkoako txapelduna denak, parte hartuko dute, besteak beste. Aurten, duathloiko errekorra hausten duenarentzat, 20.000 pezetako sari berezia prestatu du antolakuntzak. Errekorra,

Lertxundi ondarrutarren esku dago.

Indarra berreskuratze-ko hiru toki jarriko dira: Udaletxe parean bat Kalbarioan beste bat, eta hirugarrena helmugan bertan. Aldaketak Plazan bertan egingo dira eta urtero bezala, aparteko giroa sortuko da kirolari guztiak Plazan egongo baitira. Antolakuntzak 200 edo 250 aulki jarriko ditu partehatzaileentzat. Antolakuntzak 10 sari banatuko ditu. Bost modalitatetan emango dira sariok eta herriko bi onenek garaikurra jasoko dute. Bukaeran 25.000 pezetako kirol materialea zozketatuko da korrikalari guztien artean.



■ ■ Eguraldi txarrak lasterketa gogorragoa egiten du.

Zirkuitua KM: 43,5 guztira.
KORRIKA: 7 km eta 3,5 km.
BIZIKLETAZ: 33 km.

- **Korrika 7 km:** Bira txiki bat lehenengo eta San Antolinerainoko bira handi bat.
- **Bizikletan 33 km:** Plaza handia, Mendaro, Deba, Mutriku, Kalbario, Sasiola eta Plaza handia.
- **Korrika 3,5 km:** San Antolineraino bira.
- **Helmuga:** Plaza handian.

A G E N D A

FUTBOLA Mintxetan. Larunbata 30

15,45: Elgoibar - Arrasate (Kadeteak)
 17,30: Elgoibar - Dunboa (2. errejionala)

Igandea 1

10,00: Urki - Aldapetarrak (1. jubenilak)
 12,00: Urki - Mondragon (2. errejionala)

ESKUBALOIA Kiroldegian Larunbata 23

16,00: Elgoibar - Hondarrabi (Jubenilak)
 17,30: Elgoibar - Mundaiz (Kadeteak)

FUTBITOA Urasandin. Igandea 1

10,00: Lagun Toki - Sporting King-Kong - Aldavas
 11,00: Mimox - Karkis Bar Roke - G. Garcia
 12,00: Dinamo kalimotxo - Kosakos Arroak - Ametsa

E M A I T Z A K

ESKUBALOIA

Aloñamendi 21 - Elgoibar 13 (Kadeteak)
 Aloñamendi 13 - Elgoibar 29 (Jubenilak)
 Urnieta 24 - Elgoibar 19 (Neskak)

FUTBOLA

Haundi 3 - Hernani 1
 Anaitasuna 8 - Elgoibar 0 (Neskak)
 Aierru 3 - Elgoibar 1 (2. errejionala)
 Elgoibar 2 - La Salle Lizeoa 1 (Jubenilak)
 Elgoibar 4 - Eibar 1 (Infantilak)
 Elgoibar 3 - Aloñamendi 0 (Kadeteak)

Kirol liburuak euskaraz sortzeko beka

Deba bailarako Euskara eta Kirol zerbitzuen arteko elkarlanetik, kirol liburuak euskaraz egiten dituztenentzako beka kaleratu dira. Honako hau bigarren edizioa da eta aurtengo liburuaren gaia entrenamendu sistemak izango da. Liburuak bi atal nagusi izan beharko ditu: bata, kirol entrenamenduen teoria eta praktikari buruzkoa eta bestea, atletismoa, futbola, eskubaloia eta saskibaloia buruzkoa. Bekaren zenbatekoa 400.000 pezetakoa izango da eta lana egiteko epea 6 hilabetekoa. Onarriak zein informazioa eskuratzeko, Kirol Zerbitzura jo edo 74 21 58ra deitu. Proposamenak aurkezteko azken eguna maiatzaren 30a izango da.

Diapositiba emanaldia maiatzaren 5ean

Morkaiko Mendizale Elkarteak diapositiba emanaldia antolatuko datorren ostegunerako, maiatzak 5. Erreportaiaren egilea Luis I. Gonzalez da eta emanaldiaren izenburua "Sol y Bruma". Saioa Kultur Etxean izango da arratsaldeko 7,30etan.

1994ko Mugerza krosa otsailaren 5ean izango da

Mugerza krosaren LII. edizioa ohienez urtarrilean izan beharrean, otsailaren 5ean burutuko da. Arrazoia hau da: urtarrilaren 15ean Zornotzan nazioarteko lasterketa bat dagoela eta Espainiar Federazioak nazioarteko bi lasterketa egun berean izatea debekatzen duela. Ego-Tokikoek Zornotzako lasterketa aldatzeko eskatu zioten goreneko agintari den IAAF-ari baina, honek, Espainiar Federazioaren eskutik etorri behar dela erantzuna esan du. Erantzunik egon ez denez, Ego-tokikoak lasterketa otsailaren 5ean egitera behartuta daude.

Eskubaloi Taldeko kadeteak eta jubenilak, igoyeratik gertu



Elgoibar K.E. eskubaloi taldeko jubenilen eta kadeteen taldeak (azken hau argazkian) igoera fasea jokatzeko ari dira. Igoera fasea bukatzeko lau partidu baino ez dira falta. Jubenilen taldea lehen postuan dago eta "Euskal Liga"ra igotzeko aukera benetan polita dauka. Larunbat honetan, hilak 30, partidu erabakiorra jokatu dute jubenilek, irabaziz gero, igotzea lortuko lukete eta. Topaketa arratsaldeko 4etan

hasiko da eta kantzaren bestaldean Hondarribiko taldea izango dute. Sailkapenean hondarribitarrak elgoibartarren atzetik doaz, hiru puntutara.

Kadeteak bigarren daude sailkapenean eta igo nahi badute, jokatzen dituzten partidu guztiak irabazi beharko dituzte. Gogoratu, kadeteak lehen postuko taldearen atzetik daudela, puntu batera.




Zazpi Txirrindulari Eskolek hiru saioko lasterketa korritu zuten larunbatean San Antolineko industrialdean. Guztira, 200 txirrindulari baino gehiago aritu ziren lasterrean. Maila bakoitzeko lehen hiru txirrindulariek sari bana jaso zuten. Lagun Taldekoek Alegrian izango dute igande honetan, maiatzak 1, arratsaldeko 3etan hurrengo lasterketa, taldekako erlojuaren aurkako Gipuzkoako txapelketa jokatzeko baita bertan.

BETI ARGI S.L.

SUKALDE TRESNERIA

INSTALAZIO OROKORRAK

ERREGALI ARTIKULUA



**5.000 pta.ko gastua
egiteagatik, OPARI bat
jasoko duzu..**

Orain guzti hau
erakusketako
PREZIO BEREZIETAN

Errosario kalea 6, behea. % 74 16 44 ELGOIBAR

¡ JABE KOMUNITATEA !

este PROYECTOS

GARANTIA

TEKNIKA

ESPERIENTZIA

TEL: 74 10 94 • 74 37 50

FAX: 74 39 74

SAN FRANCISCO 23, BEHEA
20870 ELGOIBAR



- ETXE-BERRIZTAPENAK
- FATXADA-LANAK
- ESTALDURA ETA
TEILATUEN
INPERMEABILIZAZIOA




ATZO

GAUR

EUSKALDUNON

J A I A 9 4



MAIATZAK 15 AMASA-BILLABONA

EUSKALDUNON **Egunkaria**

SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK - KUKUBILTZO -
DULTZAINEROAK - TXARANGAK - HAUR JOKOAK - DANTZARIAK -
HANKAPALOAK - ERRALDOIAK - TRIKITILARIAK - TXALAPARTARIAK -
BERBENA - ESKOLAKO UME LASTERKETA - HERRI KIROLAK - GAZTEEN
ESKUPILOTA TXAPELKETAREN FINALA - GAZTEEN JOKO GARBI
TXAPELKETAREN FINALA - HERRI BAZKARIA - MAIXA ETA ITZIAR -
ROCK KONTZERTUA: TAPIA & LETURIA - ANJE
DUHALDE - EXKIXU - BERTSOLARI GAZTEAK

"Elgoibar ezagutzeko giltza daukagu"

Caja Laboral-Euskadiko Kutxa eta BARREN astekaria, Elgoibar kulturalki promozionatzeko lehiaketa bat burutzen ari dira. Lehiaketa bitxi honen arduraduna den Elgoibarko Caja Laboral-Euskadiko Kutxako zuzendariak, Ricardo Astigarragak, parte hartzeko zer egin behar den azaldu digu.

- Zer da "Elgoibar Ezagutzeko Giltza"?

- Gure asmoa herriko arlo kulturalak hedatzea da, jendearengan jakinmin kulturala piztu dadin. Bigarrenik, euskaraz izatea, eta hirugarrenik, publizitatea egiteaz bat, kultur bide izatea. "Giltza" Caja Laboral-Euskadiko Kutxaren bereizgarria izaki, hitzarekin jokutxo bat egin nahi izan dugu.

- Zertan datza lehiaketa?

- Hiru astetan galderak egingo dira eta bukaeran lehiaketa bat egongo da. Aste honetatik aurrera banatuko ditugun kartoietakoz ezker aldeko zatia bukaerako lehiaketan parte hartzeko izango da eta, eskumako aldea asteroko lehiaketan parte hartzeko. Asteroko kartoiak jarri behar diren erantzunak bukaerako lehiaketan jarri beharko diren berberak dira. Aste bakoitzean baina, aste horri dagokion kartoiak ekarri behar da Caja Laboralera. Bi urna jarriko

dira, bat asterokoentzat eta bestea, azken asteko kartoiak sartzeko.

- Nork har dezake parte? - Elgoibartar eta mendarotar guztiek. Galderak, etxeko gazetxo eta nagusien artean erantzuteko modukoak izago dira. BARREN etxe guztietan irakurtzen denez, etxeko guztiek parte hartzea nahi dugu.

BARRENekin kartoi bakarra eskuratuko dute. Bezero direnek, noski, kartoi gehiago lor ditzaketenez, sariaren bat irabazteko aukera handiagoa izango dute. Bezero ez direnei, gure bulegora etorri eta libreta bat zabalteagatik beste kartoi bat emango zaie. Erantzunak topatzeko ez da zailtasunik izango, erantzun gehienak BARRENen agertu baitira.



- Nolako sariak izango dira?

- Tentagarriak. Asteroko galderak erantzuteagatik 50.000 pezeta irabaz daitezke gehienez, eta bukaerako lehiaketan irabazle izateagatik, gehienez, 200.000 pezeta.

- Zer espektatiba dituzue?

- Bueno, espektatibak ahalik eta onenak izan daitezten parte hartzera animatzeko esango nieke elgoibartar guztiei.

 instituto Miguel ALTUNA (ELEMENTALA) institutua BERGARA	
GOI MAILAKO BATXILERGOAK	BTI (Batxilergo Tekniko Industriala) BAG (Batxilergo Administratiboa)
L.H. II (LANBIDE HEZIKETA II)	Administratiboa Elektriko-Elektronikoa Mekanika
MODULO PROFESIONALAK III	Mekanikagintza Enpresen administrazioa
Aurreinkripzioa: Maiatzak 4tik-18ra	
ARGIBIDEAK: Ibargarai,1. Tel.- 76 38 40	
ORDUTEGIA: Goizeko 9etatik 13ak arte	



Lehenengo Jaunartzeak

- TARTA BEREZIAK
- ENKARGUAK HARTZEN DITUGU

San Frantzisko,49 behea. ☎ 74 28 75 ELGOIBAR

IMHko neskek... Gutxi ala gehiegi?

Gaur egun 160 ikasle daude, gutxi gora behera, IMHn. Horietatik 12 bakarrik dira neskek. Kopuru murrizt honen zergatiak bat baino gehiago dira. Batetik, lan mundua zaila badago, are okerragoa da nesken kasuan, orain arte gutxi izan baitira eta; gainera, makina erreminta beti egon da gizonezkoei lotuta. Gaurregun, oraindik ere, matxismoak darrai zentzu honetan.



■ ■ Zergatik ote dago IMHn neska gutxi? Batek daki!

Irakaslegoari dagokionez, hauen artean ere gizonezkoak nabarmentzen dira, bi emakumezko bakarrik daude eta. Inma Carballo eta J.M.Mindegiarekin egon ginen, irakasleak biak, azken hau gizonezkoak, eta hiru galdera luzatu genizkien:

Zergatik ote dago horren neska gutxi IMHn? Zein modulotan dago egoera zailagoa neskekentzat? Tailerrekin oztoporik jartzen al dute neskek kontratatzeke orduan?

Inma: 1.- Formazio tekniko bat ematen den adar guztietan oso maila bajua dago nesken kopuruari dagokionean. Oraindik ere ohizko estereotipoak mantentzen dira, batetik neskei dagozkien lanbideak daude, bestetik, mutilei zuzentzen zaizkienak. Gauzak aldatzen ari dira, baina poliki-poliki.

2.- Beharbada produkzio zuzenarekin lotuta daudenak, muntaia edo fabrikazioa.

3.- Enpresa batzuei berdina zaie neska edo mutila izan. Beste batzuek ez dira hain irekiak eta ez dute argi bi sexuek ahalmen berbera dutela eta aukera berdina eman behar zaizkiela.

Mindegia: 1.- Tradizionalki mekanika beti lotu izan da gizonezkoekin. Ez gaude ohituak tailer eta fabriketan emakumezkoak ikustera.

2.- Nere ustez fabrikazio eta muntaian. Neska gehienak BBBtik datoz, mutilak, ordea, FPTik eta azken hauek errazago moldatzen

dira tailerrean.

3.- Haseran beharbada bai, baina gero mutilak beste edo gehiago apreziatzen dituzte. Emakumeek gizarte matxista honetan gizonezkoak baino hobeak direla demonstratu behar dute aukera berdina izan nahi badituzte.

Zer diote irakasleek?

Baina irakasleen iritzia jasotzeaz bat, irakasleen usteak ere jakin nahi izan ditugu. Lehenik bi mutilekin izan gara, ondoren neskei galdetu diegu. Hara jaso ditugunak:

1.- Zer pentsatzen duzue neskei buruz? - Ez dago inongo ezberdintasunik. Guretzat lagun taldeko partaideak dira.

2.- Gutxi daude ala gehiegi? - Gutxiegi. Esaten dutenez espainiar bakoitzari zazpi emakumezko dagozkio, non dira gureak?

3.- Zer iruditzen zaizue neskek ere "gizonezkoen" lan munduan sartzea?

- Lehenik eta behin lagunak dira baina lanean lehiakideak, beste edonor bezala.

4.- Diskriminazioa al dago neskekiko? - Tailerreko klasean, adibidez, irakasleek beti esaten dute: "joan neskekin eta lagun iezaiezue".

Hara, berriz, neskek esan digutena diskriminatuak sentitzen diren galdetu diegunean:

- Sartzeko orduan ez dago diskriminaziorik baina tailerreko irakasleek gauza batzuek ezin ditugula egin uste dute. Lelokeriak ere entzun behar izaten ditugu, garbitzeko orduan adibidez beti esaten digute: garbitu zuk, neska zarenez esperientzia gehiago daukazu eta.

IMHKO IKASLEAK

Etxebizitzak

PISU BAT SALGAI Altzolan.
Karmen plaza 3 - 1 ezkerre.
(15 milioi)
Interesatuok etorri bertara.

PISU BAT ALOKATUKO
nuke Elgoibarren.
☎ 74 30 25 / 74 34 49
Amaia

PISU BAT DAUKAT
ALOKATZEKO San Roken.
☎ 74 00 37

BUHARDILA BAT
ALOKATZEA nahi dut.
Berdin zait Elgoibar,
Mendaro ala Altzolan izan.
☎ 19 29 31

Lana

Neska euskalduna behar da
Donostian bi ume zaindu eta
etxe lanak egiteko.
☎ 74 06 92 **Petra**

KLASE PARTIKULARRAK
ematen ditut euskeraz eta
erderaz. OHO edo BUPen.
☎ 74 28 53 **Alazne**

Aizu etxeoandre!,
PERFUMERIA
APAINKETA ETA
KOSMETIKAn ari den
frantziar multinazional batek
EMAKUMEZKOAK
BEHAR DITU. Salmenta
zuzena. Diru etorri oso ona.
Muestrario bikaina
publizitatez lagundua.
Aukera ederra zuretzat.
Deitu arratsaldeko 7etatik
aurrera.
☎ (948) 51 05 06

31 urteko neska bat naiz eta
etxe lanak, umeak zaindu,
garbiketa lanak eta antzerako
lanak egiteko prest nago.
☎ 17 17 40

EDOZEIN TESTU moeta
ORDENAGAILUZ pasatzen
da. Grafikoak ezartzeko
aukera. Deitzeko orduak:
14:00-16:00 eta 20:00-22:00
☎ 74 22 77 **Iratxe**

ENPRESARIALETAN
DIPLOMATUAK, klase
partikularrak ematen ditu.
☎ 74 39 89 **Mari Carmen**

Salerosketak

KITARRA BAT SALTZEN
dut. Egoera oso onean. Oso
merkea.
☎ 74 17 15 **Iban**

GARAGE BAT
ALOKATZEN DA, pista
beltzean. Bere atarekin.
☎ 74 16 97

YAMAHA TZR 80 bat
saltzeko daukat.. SS-AB
☎ 74 41 12 **Nekane**

EGURREZKO SEHASKA
zuri bat saltzen da egoera eta
prezio onean
Ermuaran bide 9 - 1 ezk.

GARAGE BAT saltzen da
pista beltzean. Prezio egokia
☎ 74 08 79 **Julian**

GARAJE BAT
ALOKATZEN da, San Roke
5ean. Marraduna.
☎ 74 08 05

San Roke auzoan
TERRENOAK SALGAI
ditut.
☎ 74 39 89 **Rufina**

Ford Escort gorria saltzen
dut. SS 0883 AJ.
☎ 74 15 24

"Catusa" 4,20m.tako
karabana bat salgai dut..
Ondo zainduta.
☎ 74 12 95 **Pello**

Lehenengo jaunartzeko
HABITO BAT SALTZEKO
EDO LAGATZEKO daukat.
☎ 74 27 66 **(Tere)**

Bestelakoak

Bigarren eskuko
FRIGORIFIKO BAT
HARTUKO NUKE.. Deitu
10etatik-12etara
☎ ,74 06 64 **Nekane**

KARTERA GALDU NUEN
larunbatean hiru giltz zituela
barruan.
☎ 74 20 44 **Mila**

BETAURREKOAK
GALDU NITUEN hilaren
18an. Doratuak eta exagono
formadunak dira.
☎ 74 11 95

URREZKO
BELARRITAKO BAT
GALDU nuen duela 20 bat
egun Parrokiatik Pedro
Muguruza bitartean.
Norbaitek topatu badu, deitu
mesedez:
☎ 74 09 53
Angelita Lizundia

URREZKO GURUTZEA
ETA FERRA (herradura) bat
GALDU ditut. Norbaitek
aurkitu baditu mesedez deitu:
☎ 74 04 51 **Iratxe**

Joan zen hilabetean
kremaileradun karpeta beltz
bat galdu zitzaidan Maalako
parkean. Barruko
kuadernoetan izena jartzen
zuen. Norbaitek topatu badu,
mesedez deitu:
☎ 74 00 16 **Txomin**

Karitasek ERROPAK
GORDETZEKO ARMAIRU
BAT BAT BEHAR du.
☎ 74 15 09 / 74 12 57

PREMAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko.....743354
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitala..756264
Drogomenpektasun Z..741008
Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....112131
Taxi Geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Kirol Zerbitzua742158
Kultura Zerbitzua742158
Mendaroko Udala ...756100
Ongizate zerbitzua...743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
IMI.....741196
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Polikiroldegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79
I.M.H.74 41 32
Institutua74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Mundo11 85 05
74 22 67
El Correo Español...74 10 82
Egin.....11 84 21
Deia74 11 57

29 OSTIRALA

19,00 PINTURA ERAKUSKETA

Egilea: Rosa Maria Sanchez

✓ Kultur Etxean
Maiatzaren 15a arte.

20,00 HITZALDIA

Hizlaria: Alejandro Altuna

Gaia: Kirola eta Medikuntza

✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Urgazi Trithloi taldea.

22,15 ZINEA

"Blanco Humano" USA, 1993

Zuzendaria: J. Woo.

Aktoreak: J.C. Van Damme, Y. Butler.

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba.

30 LARUNBATA

10,00 TREBETASUN SOZIALEN PROGRAMA

Gazteei zuzendua

✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Hodei.

1 IGANDEA

9,00 DUATHLOIA

✓ Plaza Handian
Antolatzailea: Urgazi

19,30-22,15 ZINEA

"Blanco Humano"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba.

2 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Blanco Humano"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba.

4 ASTEAZKENA

8,00 - 10,15 - 12,30 IRUDI BIZIAK

"Cafe Irlandes" Stephen Frears 93

Institutu eta Mekanikako

ikasleentzat

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba
eta Udaleko Prebentzio Zerbitzua.

19,00 TREBETASUN SOZIALEN PROGRAMA

Gazteei zuzendua

✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Hodei.

5 OSTEGUNA

19,30 DIAPOSITIBA EMANALDIA

Gaia: Sol y bruma "Mali"

✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

6 OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA

✓ Odol emaleen egoitzan
(P. M. Urruzuno behe)

OHARRA: "Blanco Humano" izango da Udaleko Pleno Aretoan emango den azken filme komertziala. Herriko Antzokia zabaldu arte, beraz, ez da zinerik egongo. "Azul" pelikula aurrerago emango da Zine Klubean.

Z I N E A

Blanco Humano

Zuzendari honen lanean mendebaldeko genero beltzaren eta ekialdeko arte martzialen eragina ikusten da. Bi joera hauen konbinaketan datza zinemagilearen arrakasta. Izan ere, zuzendari honek Stone, Scorsesse eta beste batzuren onespina izan du, eta horrek zinemagintza amerikarraren industrian sartzeko bidea erraztu dio. Filmea entretenigarria da akziozko bi estilo uztartzen direlarik: amerikarra eta orientala.

txandak

FARMAZIAK:

- 30, larunbata: Ormazabal
- 1, igandea: Ormazabal
- 2, astelehena: Ormazabal
- 3, asteartea: Etxeberria
- 4, asteazkena: Etxeberria
- 5, osteguna: Etxeberria
- 6, ostirala: Etxeberria

OKINDEGIA:

- 1, igandea: ZABALETA

Fotero

OKINDEGIÆ
OPILDEGIÆ

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35



XABIER

ILEAPAINDEGIA

*Eskatu
eguna eta ordua*

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

EXMAHE S.L.

MAKINA ERRAMINTA ZERBITZUAK ETA ESCLUSIBAK

BULEGOAK:

Azpilgoeta, 3
TEL. 75 50 93 FAX 75 51 21
20 850 MENDARO

ALMAZENA-TAILERRA:

Pedro Muguruza, 25
TEL. 74 36 46
20 870 ELGOIBAR

OINARRIAK

1. Lehiaketa honetan Elgoibar eta Mendaron bizi den edonork parte har dezake.
2. Lehiaketaren iraupena 3 astekoa izango da.
3. Astero bost gairi buruzko galderak egingo dira.
4. Caja Laboral Euskadiko Kutxako bezeroek Elgoibarko sukurtsalean izango dituzte eskuragai txartel gehiago.
 - Bezero izateagatik kartoi bat gehiago.
 - Nomina edo pentsioa bertatik kobratzeagatik 2 kartoi gehiago.
 - (Beste zenbait ezaugarri) 1-2 kartoi gehiago.
5. Erantzunak Caja Laboral Euskadiko Kutxak Santa Ana kalean duen bulegoan jarriko duen buzoi batean laga beharko dira. Azken eguna asteazkena izango da.
6. Astero irabazle bat izango da.
7. Astero irabazle bat izateaz gain, azken sari berezi bat ere izango da lehiaketaren bukaeran.

SARIAK

- Astero 25.000 ptako gutxieneko saria. Kartilaren jabeak nomina, pentsioa edo autonomo erreziboa bertatik jasoz gero saria bikoiztu egingo da (50.000 pta.).
- Azken saria 100.000 ptakoa izango da gutxienez. Nomina, autonomo erreziboa edo pentsioa bertatik jasotzen duenak nominaren kantitate berbera jasoko du, 200.000 pta gehienez.

*Anima zaituz
parte hartzera !!*

1. GALDERA SORTA

1. Noiz kaleratu zen BARREN aldizkariaren lehen alea?
 - A. 92ko abenduaren 1. hamabostaldian
 - B. 93ko urtarrilaren 1. hamabostaldian
 - C. 92ko abenduaren 2. hamabostaldian
2. Zein da Ego-Toki elkarteko loritoaren izena?
 - A. Anbolo
 - B. Anboto
 - C. Bartolo
3. Zein sari irabazi zuen Angel Mari Albizu judokak 1993an?
 - A. Euskadiko Txapelketa.
 - B. Espainiako Txapelketa.
 - C. Espainiako txapeldun ordea.
4. Zenbat txistularik osatzen dute Udal Taldea?
 - A. 4
 - B. 12
 - C. 20
5. Ekintza hauetatik, zein zuzendu zuen Pedro Muguruzak?
 - A. Sondikako airteportua
 - B. Bartzelonako Portuaren berrikuntza
 - C. "Valle de los Caidos"

Elgoibar ezaagutzeko giltza





PAGOAGA S.A.

Iturgintza

- ▷ ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK
- ▷ IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN



GAS INSTALATZAILEA,
IG4 baimenarekin.
GAS NATURALA ETA PROPANOA

☎ 74 02 79 - 74 05 12
San Antolin Kalea 13. ELGOIBAR



CASA ASTIGARRAGA



**LORAK
BIZIKLETAK**

MAIATZAK 1 AMAREN EGUNA

*Amarentzako oparia
aukeratzen lagunduko
dizugu.*

ORDUTEGIA:

Larunbatean 9,30etatik 13,00etara
Igandean 9,30etatik 13,00etara



Errosario 27. - Tel. 74 43 86 - ELGOIBAR